

## CV y RESÚMENES DE PONENCIAS

**Hizlaria: Prof. Dr. Klaus North, Wiesbaden Business School. Alemania**

### CV

Klaus Doktorea Ingeniaria mekanikoan masterra eta Ergonomian doktoratua da, Darmstadtoko (Alemania) Teknologia Unibertsitatean.

Gaur egun, Alemaniako Wiesbaden Businessen zuzendaritza internazionalako irakaslea da. Une honetan esku artean duen ikerketa ezagutzaren kudeaketan, eta zehazkiago, ezagutzak erakundeen artean testuinguru internazional baten barruan nola elkarbanatzean oinarritzen da. Are gehiago, berrikuntza eta kalitatearen kudeaketan lanean dihardu. Alemaniako Ezagutzaren Kudeaketa Elkargoaren sortzailea da eta ezagutzaren kudeaketa sari alemaniarraren zuzendari zientifikoa izan da. Journal of Intellectual Capital editorialeko batzarkidea da.

Enpresa handien, gobernuen eta erakunde internazionalen kontsultak jasotzen ditu maiz eta business internazionala programetan irakasten du sarritan. Baita ere, Brujasko Europa Ikastetxeko irakasle gonbidatua izan da.

Ezagutzaren kudeaketaren eta kudeaketa internazionalaren inguruan argitalpen ugari egin ditu. “wissensorientierte Unternehmensführung” bere liburua hainbat hizkuntzetara itzulia izan da, eta berau, ezagutzaren kudeaketako garrantzi handiko eskuliburua da. Bere argitalpenen artean ondorengo liburuak ditu; “Effective Knowledge Work(ers)” (Emerald, 2011) , eskuliburu orokorra “Knowledge Management: value creation through organizational learning” (Spriner, 2014) eta “Localizing Global Production: know-how transfer in international manufacturing” (ILO, 1997).

### Hitzaldiaren laburpena 1: Ezagutzen transferentzia kontzeptua eta bere harremana Ezagutzaren Kudeaketarekin: lanabesak eta ohiko metodologiak

Klaus Northek kontzeptuen arteko desberdintasunak adieraziko ditu, eta informazioa, ezagutza eta lehiakortasunaren arteko harremanak azalduko ditu, hala nola, adierazi gabeko edo isilpeko ezagutza eta esplizituaren artekoa ere. Kontzeptuei buruzko ikuspegi orokorra eta administrazioetan ezagutzaren fluxua arintzeko lanabesak eta praktikak plazaratuko ditu. Giza baliabideetan ezagutzaren transferentzia barneratzearen garrantzia azpimarratuko du.

### Hitzaldiaren laburpena 2: Alemaniako Esperientzia

Alemanian federazio, eskualde zein toki esparruan, gaiaren inguruan dauden esperientziak aurkeztuko ditu. Praktika eta metodo onenak nabarmenduko ditu (mentoring eta beste batzuk), eta esperientzia hau aurretik aurkeztutako beste esperientziekin alderatuko du.

**Hizlaria: *John Murphy*, Civil Service Learning, Knowledge & Information Management Lead. Erresuma Batua**

CV

John Murphyk erakundearen hobekuntzan, enpresaritza eta praktiketako prozesuetan, eta ezagutzaren transferentziak duen paperean esperientzia du. Gaur egun Erresuma Batuko *Knowledge & Information Management*eko arduraduna da Civil Service Learningen (Erresuma Batuko administrazioko garapena eta ikaskuntza gainbegiratzeko duen gobernu kidegoa. Horien helburua, ezagutza eta informazio fluxuak Britainia Handiko gobernuaren bidez askatzea da ).

Aitzinean, Murphyk, bere langileen %95a galdu eta lekualdatu zuen erakunde baten ezagutzen transferentzia gainbegiratu zuen. Berriki, Britainia Handiko Energia eta Aldaketa Klimatikoa Sailean, ezagutzen transferentzia hobetzea helburu zuen programa baten buru izan zen. Horren aurretik, zerbitzu profesionaletako enpresetan eta hainbat aholkularitzetan, enpresaritza hobekuntza buru izan zen.

**Hitzaldiaren laburpena: Erresuma Batuko esperientzia**

Erresuma Batuko Administrazio Publikoa 46 saila eta 300 agentziaz osatua dago, eta azken horiek autonomia gradu desberdinak dituzte. 2010. urteaz geroztik, Erresuma Batuko Administrazio Publikoaren langile kopurua %20an jaitsi da. Aldi berean, administrazioa osatzen duten pertsonen adinaren batez bestekoa %40 igo da, 50 urtetik gorakoa izanik.

Bi joera horiek Erresuma Batuko Administrazio Publikoaren mehatxua azaleratzen dute, erakundearen memoria eta bere zerbitzuen eraginkortasuna eta kalitatea hobetzeari dagokionean, hain zuzen ere.

Egoera horri erantzun nahian, Erresuma Batuko Administrazio Publikoak ondorengo irizpideak jarri ditu martxan:

- 1) Sailek eta Agentziaz erabilitako teknikak
- 2) Egoera desberdinei aurre egiteko erabilitako irtenbideak (erretiro planak, boluntarioki hartutako erretiroak, langileen birkokapena)
- 3) Gertaera arrakastatsuak – Zer izan den baliagarria eta zergatik
- 4) Ikasi beharrekoa

**Hizlaria: Hilde Van Riet, Project Leader for Knowledge Transfer based learning activities, Training Institute of the Federal Administration. Belgika**

### CV

2009. urteaz geroztik Ezagutzaren Kudeaketa eta Ikaskuntzaren Konponbideak proiektuaren burua da, Administrazio Federalerako Prestakuntza Institutuan (TIFA). Garatu dituen konponbideen artean honako ikastaroak aurki ditzakegu; “Zure ezagutza nola transferitu”, “lan iraunkor digitala”, “Dokumentuen kudeaketa” eta “Ezagutzaren Kudeaketa”.

Ezagutzaren kudeaketaren alorrean alde zuzeneko esperientzia badu. Adibidez; 2006. urtean, adinen piramide zehatzari jarraiki, Tractebel Engeneeringen (Suez) esperientziadun langile gazteek, aurre egin beharreko egungo erronken inguruko tesia idatzi zuen.

### Hitzaldiaren laburpena: Belgikako esperientzia

Adinen piramide alderantzikatuaren arazoei aurre egiteko, 10 urte baino gehiagoz, langile eta antolakuntza zerbitzu publikoak ezagutzen transferentziarako estrategia bat martxan jarri du.

Hilde Van Riet, proiektu buru izanik, administrazio federalean garatutako lanabes espezifikoetan oinarritutako ezagutzaren transferentziaren inguruko hainbat ikastaro baneratu zituen.

Gaur egun, TIFAn ezagutzen kudeaketaren inguruko prestakuntza programak bezeroen behar aldakorren arabera eguneratzen ari dira.

Belgikako esperientzia lau etapetan banatua aurkeztuko du:

- 1) Belaunaldien arteko arazoa baneratu du, Belgikako administrazio federalaren barnean adinen piramide alderantzikatuak eta bere ondorioak, ezagutza eta esperientzia galera gisa azalduta.
- 2) Ezagutzaren kudeaketaren estrategia eta Belgikako administrazio federalak erretiroagatik izandako joate masiboari erantzuteko garatutako lanabesak aurkeztuko ditu.
- 3) Lanabesen erabilera zabaltzeko garatu zen prestakuntza metodologia (prestakuntza estrategia konbinatua) eta bere ebaluaketa azalduko ditu.
- 4) Amaitzeko TIFA aurreikusitako hurrengo pausu eta ekintzak deskribatuko ditu.

**Ponente: Javier Martinez Aldanondo, Catenarian Gerentea, Ezagutzaren Kudeaketa. Txile.**

### CV

Catenariako Ezagutzaren Kudeaketako Gerentea, ikaskuntza eta ezagutzaren kudeaketan espezializatua dagoen aholkularitza enpresa de [www.catenaria.cl](http://www.catenaria.cl). Knoco Ltd, redeko zuzendaria, egoitza Erresuma batuan dute eta presentzia internazionala, zeinak ezagutzaren kudeaketan espezialistak diren <http://www.knoco.com/knowledge-management-consultants.htm>. Knowledge Workseko sortzaileetako bat, [www.knowledgeworks.cl](http://www.knowledgeworks.cl), ezagutzaren kudeaketaren, berrikuntzaren eta arriskuen prozesuez arduratzen den aholkularitza enpresa.

Zuzenbidean lizentziatua EHUn eta Masterra Internet Managementen Institut Català de la Tecnologiaan. NBEko eta Banku Mundialeko aholkularia ezagutzaren kudeaketan eta Banku Interamerikanoko aholkularia komunikazio eta ikaskuntzaren garapenaren alorrean.

Txileko Unibertsitate Katoliko Pontifizean Ezagutzaren Kudeaketaren lanabes eta oinarrien ikastaroko eta Santiagoko Unibertsitateko Ezagutzaren Kudeaketaren Diplomaturako irakaslea. Sevilla eta Salamancako unibertsitateetako e-learning masterretako irakaslea.

2003az geroztik International Brandon Hall Excellence in e-learning Awardseko epailea.

Innovación Educativa de la Secretaría Académica del Instituto Politécnico Nacional de Mexiko aldizkariko arbitraje batzordeko kide.

Arlo publiko zein pribatuko erakundeekin lanean 20 urtez dihardu (finantza arloa, farmazeutikoa, indar armatuak, merkataritza, meatzaritza, hezkuntza etab.), ezagutzaren kudeaketa, elkarlanerako eta aurrez aurreko zein ikaskuntza birtualaren bidez, errendimendua hobetzeko emaitzen hobekuntzara bideratutako proiektuetan.

### **Hitzaldiaren laburpena: Ezagutzaren kudeaketa XXI. mendean – barneratutako ikasgaiak eta erronkak**

Erakunde publiko desberdinetan ezagutzaren kudeaketaren ekimenen inplementazioan izandako ibilbidea azalduko du, izandako zailtasunak, eta etorkizun hurbilean aurkeztu diren erronkak non ezagutzak oinarri estrategikoa izaten jarraituko du.

**Hizlaria: Mikel Gorriti Bontigui, Giza Baliabideen arduraduna. Funtzio Publikoaren Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.**

### CV

Gorriti doktoreak Lanaren eta Erakundeen Psikologian doktoregoa du Deustuko Unibertsitatean. Gaur egun, Giza Baliabideen arduraduna da Eusko Jaurlaritzako Funtzio Publikoaren Zuzendaritzan.

Enplegu Publikoaren Ikerketa Taldeko kide izandakoa da (APIN) 2012. urtea arte, Ebaluaketa eta Prospektiba Agentzia Nazionaleko ikuskatzailea da (ANEP) eta irakaslea Lidergo eta Zuzendaritza Publikoko masterrean (APIN/UIMP).

Giza baliabideetan, funtzio publikoan, antolakuntza diseinuan eta zuzendaritza publiko profesionalean aditua.

### Hitzaldiaren laburpena: EAEko AOren Enplegu Plana: Ezagutzaren kudeaketa eta mentoring

Honako ildoak jarraitu du bere hitzaldian:

Eusko Jaurlaritzako Enplegu Plana: aurrekariak dokumental esanguratsuak; diagnosiaren ondorio nagusiak; ekintza nagusiak, herritarrek adierazitako zerbitzu publikoen eskaeran oinarritutako ekintzei erreferentzia berezia eginik; antolaketaren berregituraketa eta horrek duen garrantzia ezagutzaren kudeaketarako, prestakuntzarako eta mentoringerako.

Nola gureganatu eta transmititu erretiratzen direnen ezagutza?: Arrakastarako irizpideak eta oinarritzko planteamendu metodologikoak. Mugak.

---

**Hizlaria: Carlos Suso Llamas, APko Azterketa eta Ikerketa Kabineteko Burua. Andaluziako Administrazio Publikoko Institutua.**

### CV

Carlos María Suso Nekazal Industrietan Ingeniari Teknikoa eta Zientzi Ekonomikoetan lizentziatua da. Andaluziako Juntako goi mailako administrariaren kidegoko funtzionarioa da. Azken lanak: prozeduren sinplifikazioa (88/97), erakundeen komunikazio proiektuak (97/2000) eta gaur egun bitartean, prestakuntza eta beste proiektu batzuk.

Oraingo lanpostua: APko Azterketa eta Ikerketa Kabineteko Burua - Andaluziako Administrazio Publikoko Institutua. Andaluziako Junta.

### Hitzaldiaren laburpena: Mentor ekimena

2011. urtetik Andaluziako Juntak garatutako "Mentor ekimena" aurkeztuko du. Ekimenaren lan prozesua, ebaluaketa, eboluzioa eta etorkizunerako proposamenak zehaztuko ditu.

**Mentor ekimena** ikaste prozesu bat da, non pertsona telemakoak (aholkatua) jagolearen (aholkularia) ezagutzak jasotzen dituen. Jagoleak bere esperientzia partekatzen du telemakoarekin eta horrela, azken horrek, ikuspuntu berriak izango ditu, pentsatzeko modua aberastu, eta pertsona zein profesional gisa duen potentziala garatzeko aukera izango du. Proiektuak jagoleen prestakuntza barneratzen du.

---

**Hizlaria: Carlos Merino Moreno, ezagutzaren kudeaketan aditua, Enpresen Antolaketa Saileko irakaslea, Zientzi Ekonomikoak eta Enpresaritza Zientziak Fakultatea, Madrilgo Unibertsitate Autonomoa. ICA2 Berrikuntza eta Teknologian laguntzailea. Red CEDDETen koordinatzailea.**

## CV

Ezagutzaren kudeaketan aditua, Enpresen Antolaketa Saileko irakaslea, Zientzi Ekonomikoak eta Enpresaritza Zientziak Fakultatea, Madrilgo Unibertsitate Autonomoa. ICA2 Berrikuntza eta Teknologian laguntzailea. Red CEDDETen koordinatzailea. Ezagutzaren kudeaketa ikastaroko arduraduna APIN eta AENORen

## Hitzaldiaren laburpena: Erakunde desberdinen esperientzia ezagutzaren kudeaketa eta transferentzian

Energia nuklearra, kooperazio espainiarra eta defentsa alorreko hiru esperientzia aurkeztuko ditu. Proiektuen ikuspuntu desberdinak adieraziko ditu, zeinak ezagutzaren kudeaketa eta transferentziara zuzenduak dauden. Esperientzia horietan ikasitakoa azalduko da.

---

**Hizlaria: Rafael Lifante Vidal, Etengabeko Prestakuntzako Negoziatu Burua. Prestakuntza Saila. Alacanteko Aldundia.**

## CV

Rafael Lifante 1998. urtean hasi zen Alacanteko Aldundiko prestakuntza sailean lanean. Gaur egun, Etengabeko Prestakuntzako Negoziatu burua izanik. Prestakuntzaren kalitatearen kudeaketan aditua da (APIN 2005). Horretaz gain, Komunikazioan graduatua da Errioxako Unibertsitate Internazionalan.

## Hitzaldiaren laburpena: Ezagutzaren kudeaketa Alacanteko Aldundian

“Ezagutza pertsonengan dago, horregatik ezagutzaren kudeaketaz ari garenean, pertsonen kudeaketaz ari gara hitz egiten. Filosofia horri jarraiki, Alacanteko Aldundiko prestakuntza saila, 2010. Urteaz geroztik hainbat ekintza jarri ditu martxan (“Ikaskuntza-komunitateak”, “Disraeli Proiektua”, “Las 10 cosas que debes saber”...), denak talentua aprobetxatzera, eta pertsonak (hortaz ezagutza) harremanak izateko eta hazteko aukera izan dezaketen espazioak sortzera bideratuak.

Rafael Lifantek Alacanteko Aldundiaren esperientzia hori azalduko digu.

**Hizlaria: Jesús Martínez Marín, Ezagutzaren kudeaketa aditua. Justizia Saila. Kataluniako Generalitat.**

## CV

Jesús Martínez Psikologian lizentziatua da, Kriminologian eta Zigor Egikaritzean masterra. Informazioa eta ezagutzaren sozietatean masterra du eta beste bat Zuzendaritza Funtzio Altuan. 2006. urtetik Kataluniako Generalitateko Justizia Saileko Ikasketa Juridikoko eta Prestakuntza bereziko zentroko Zuzendaritza prestakuntza eta Prestakuntza Programa berrien arduraduna da. Gaur egun, 14.000 langilerentzat baino gehiago zuzendua dagoen, ezagutzaren kudeaketa eta berrikuntza estrategia programak zuzentzen ditu Justizia Sailean.

*Compartim* programaren inspiratzailea eta zuzendaria da.

Elkarlaneko Lanerako bere blogaren bidez ezagutzaren kudeaketa, prestakuntza eta ikaskuntza, kudeaketa, berrikuntza eta lidergoa Administrazio Publikoetan gaien inguruko alderdi desberdinen komentarioak egiten ditu.

UOC argitaletxean Nuevos Modelos de Formación para Empleos Públicos: Guía para la transformación, argitaratu berri du.

## **Hitzaldiaren laburpena: Prestakuntza eta Giza baliabideetako arloen agenda, erakundeen ezagutzaren transferentzia egiteko eskaeren aurrean.**

Langile publikoei zuzenduta dauden, belaunaldien arteko ezagutza transferentzien programa desberdinek ( mentoring eta beste batzuk) dituzten elementu komunak aurkeztuko dizkigu eta Espainiar estatuan martxan jartzen ari diren zenbait esperientzi birpasatuko ditu.